# Arkide

Okondoko
herriaren aldizkaria
#34
2022ko MARTXOA / MARZO




## Emakumeen Egunaren aldarrikapena

Aurten ere, Okondoko udal Berdintasun Arloak hainbat ekintza antolatu ditu Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan. Hala, martxoaren 6an, igandean, Okondoko eta Aiarako emakumeek Lilatoira joateko aukera izango dute, Donostian izango den emakumeen lasterketara. Martxoaren 8an, kontzentrazioa egingo dute emakumeen eskubideak aldarrikatzeko. Frontoian izango da, 18:00etan. Martxoaren 13an, igandean, euskara eta berdintasuna uztartuz, *Hemendikara* ikuskizuna eskainiko du Zirika Zirkus konpainiak, 17:30ean, frontoian. Bertan, Aiaraldeko mugimendu feministaren historiari buruzko erakusketa ere egongo da. Bestalde, martxoaren 20an, igandean, Afrikaldiaren barruan, zineforuma egongo da Kultura Etxean, 18:00etan. Egun horretan, Aiaraldeko mugimendu feministaren historiari buruzko erakusketa ere bertan izango da, Kultura Etxean. Era berean, martxoan, liburu berriak egongo dira udal liburutegiko Txoko Morean. Horrez gain, Hamahiru Arrosei buruzko ibilbidea ere antolatuko dute.

*Okondo acogerá diversas actividades para reivindicar el Día Internacional de las Mujeres. La concentración del 8 de Marzo será a las 18:00 en el frontón. Además, se organizará un espectáculo, un cinefórum y varias exposiciones, entre otras iniciativas.*

---

## Regresa la Feria del Caserío

Tras haber sido suspendida los dos últimos años con motivo de la pandemia de la Covid-19, la Feria del Caserío, que se celebra en Okondo año tras año el primer domingo de primavera, tendrá lugar el 27 de marzo. Será la XXIII edición del evento. En los diferentes puestos del mercado se podrá adquirir y probar una gran variedad de productos agrícolas y artesanales.

Las solicitudes de autorización para la instalación de puestos se podrán realizar en el registro general del Ayuntamiento hasta el 11 de marzo. Cabe destacar que no se admitirán aquellas solicitudes que se envíen por fax. El impreso de solicitud se puede recoger en las oficinas municipales o bien descargarlo en www.okondokoudala.eus.

Para participar, las y los baserritarras deberán presentar la siguiente documentación: la acreditación del registro sanitario, el alta en la seguridad social agraria, la justificación del alta en el epígrafe correspondiente al I.A.E y, por último, el carnet de manipulación de alimentos.

Las personas que se dediquen a la artesanía y quieran participar en la feria, en cambio, tendrán que presentar su documento de identidad y los productos a exponer.

*COVID-19a dela eta azken bi urteetan bertan behera geratu ondoren, Baserritarren Azoka hartuko du Okondok martxoaren 27an. Bertan parte hartzeko, udal erregistro orokorrean eman behar da izena. Inskripzioa betetzeko epea martxoaren 11n amaituko da.*

**ALBISTEAK** NOTICIAS

# Okondoko erdigunetik igaroko da 22. KORRIKA martxoaren 31n




Martxoaren 31ko 22:06ak aldera zeharkatuko du KORRIKAk Okondoko erdigunea, 4 kilometroko luzeran, hain zuzen. Udalak bertan parte hartzera animatu nahi ditu okondoar guztiak.22. edizioa izango da aurtengoa, eta apirilaren 10era arte iraungo du, Donostiara iritsi arte. Gordexolatik etorriko da eta Laudiorako bidea hartuko du Garate bailaratik.

Motorrak pizten hasteko, ekimenaren inguruko aurkezpena antolatuko du AEK euskaltegiak Okondon. Martxoaren 4an, ostiralean, izango da, 18:30ean, Kultura Etxean. Bertan, *Uhinak* 22. KORRIKAren dokumentala proiektatuko dute. Aurkezpen horretan, kilometroak hartzeko aukera izango dute tokiko elkarteek eta eragileek. Izan ere, Okondoko ibilbidean parte hartzeko deia luzatu zaie dagoeneko, eta tokiko alderdi eta talde politiko guztiek horrekin bat egin dute, EAJ-PNVk, EH Bilduk eta Okondo Aurrerak, hain zuzen.

Bestalde, martxoaren 31n, 17:00etan, umeentzako ekintzak eskainiko ditu Kokoriko Hezkuntza Faktoriak, Euskara Arloak antolatuta. 0 eta 3 urte bitartekoentzat, egurrezko jostailuen gunea egongo da; 4 urtetik gorakoentzat, aintzinako jolasak gure egunetara ekarrita.

*La 22º edición de la KORRIKA recorrerá el centro de Okondo sobre las 22:06 del 31 de marzo, a lo largo de 4 km. Ese mismo día, a las 17:00, se ofrecerán talleres infantiles. AEK organizará una presentación el viernes 4, a las 18:30, en la Kultura Etxea, donde se proyectará el documental 'Uhinak'.*

## Okondo contará con un punto de acceso Wi-Fi gratuito



Las y los okondorras podrán disfrutar de un punto Wi-Fi gratuito gracias a la propuesta realizada por la Cuadrilla de Ayala en colaboración con el Departamento de Desarrollo Económico, Innovación y Reto Demográfico de la Diputación Foral de Álava. Además de en Okondo, se instalará también en otros dos municipios de la comarca, en Artziniega y Ayala, en concreto. Cada ayuntamiento ha escogido la ubicación más adecuada para la instalación de dicha señal, de cara a que el servicio resulte lo más adecuado posible y esté en consonancia con los intereses de las y los habitantes de cada localidad. En Okondo, el punto de acceso Wi-Fi estará situado en la Eskola, y dará señal gratuita a sus alrededores.

*Doako Wi-Fi sarbidea instalatuko dute Okondon; Eskolan kokatuko da eta inguruko kaleei ere seinalea emango die.*



## Inspección anual de vehículos agrícolas, el jueves 24 de marzo



La campaña anual de inspecciones periódicas para vehículos agrícolas se llevará a cabo a lo largo de marzo. En el caso de Okondo, tendrá lugar el 24 del mes, jueves. El horario de inspección será de 08:00 a 13:00. Para acudir a la revisión, será necesario pedir cita previa, llamando al número de teléfono 94 671 17 13. De cara a asegurar una mejor realización de la campaña, se ruega que cada vehículo la realice el día y hora señalada en cada municipio, así como que el pago se efectúe con el importe exacto. En el caso de los vehículos agrícolas, se deberán abonar 43,96 euros por cada automóvil; en el de los de obras y servicios, un total de 76,29 euros. Cabe destacar que este año no se inspeccionarán vehículos *quad* ni ATV.

*Martxoaren 24an egingo da nekazaritzako ibilgailuak aldizka ikuskatzeko urteko kanpaina eta hitzordua eskatu beharra dago.*

## Ur, zabor eta estolderia tasen ordainketa epea, martxoaren 10era arte



Martxoaren 10ean, ostegunean, amaituko da 2021eko laugarren hiruhilekoko uraren, zaborraren eta estolderiaren gaineko udal-tasak biltzeko epea Okondon. Banketxeetan helbideratutako ordainketen kasuan, zergapekoek ez dute inolako kudeaketarik egin behar, kargua bankuaren bidez gauzatu baita automatikoki otsailaren 22an, asteartean.

**Helbideratu gabeko ordainketak**

Helbideratu gabeko ordainketen kasuan, ordea, aipatu beharra dago udal bulegoetan jaso behar dutela ordainagiria okondoarrek, horren ostean, tasa horiek Nafarroako Rural Kutxan ordain ditzaten. Udaletxeko ordutegia, ohi bezala, 09:00etatik 14:00ak arte izango da astelehenetik ostiralera.

*El 10 de marzo finaliza el plazo para realizar el pago de las tasas de agua, basuras y alcantarillado del 4° trimestre de 2021.*

## Recorrido para visibilizar la historia de las Trece Rosas



Dentro de la campaña del 8 de Marzo, el Área de Igualdad del Ayuntamiento homenajeará a las Trece Rosas que fueron fusiladas por el régimen franquista. Para ello, ha organizado un recorrido al aire libre, que estará a disposición de la ciudadanía en 13 puntos del municipio. La muestra contará con fotografías y textos explicativos para conocer, visibilizar y conocer mejor quiénes eran estas trece mujeres. En palabras del Área de Igualdad, es, por lo tanto, una buena oportunidad para saber más sobre la historia de las mujeres y, al mismo tiempo, homenajear a las Trece Rosas. En el mapa de esta noticia se encuentran señalados los lugares donde estarán ubicados los 13 espacios de la exposición.

*Martxoaren 8ko kanpainaren barruan, Hamahiru Arrosak ikusarazteko ibilbidea antolatu du Udalaren Berdintasun Arloak.*



# ARRETA TELEFONOAK INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO
# TELÉFONOS DE ATENCIÓN CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

**AIARAKO KUADRILLAKO GIZARTE LANGILEA**
TRABAJADORA SOCIAL DE LA CUADRILLA DE AYALA
**681 084 118**
**08:00-15:00 Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes**

**AIARAKO KUADRILLAKO BERDINTASUN TEKNIKARIA**
TÉCNICA DE IGUALDAD DE LA CUADRILLA DE AYALA
**686 587 889**
**08:00-15:00 Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes**

**LARRIALDIKO ZERBITZU SOZIALAK**
SERVICIOS SOCIALES DE URGENCIA
**945 134 444**
**24 orduz 24 horas**

**24 ORDUKO ARRETA TELEFONIKOA**
ATENCIÓN TELEFÓNICA 24 HORAS
**900 840 111**

**LARRIALDIAK**
URGENCIAS
**112**



# AGENDA
## MARTXOA

**1**
**ERAKUSKETA**
Hamahiru Arrosen ingurukoa, Okondoko 13 lekutan.

**4**
**KORRIKAREN AURKEZPENA**
Aurtengo edizioaren inguruko *Uhinak* dokumentala proiektatuko dute.
*18:30* **Kultura Etxea**

**8**
**EMAKUMEEN EGUNA**
Kontzentrazioa.
*18:00* **Frontoia**

**13**
**IKUSKIZUNA**
*Hemendikara*, Zirika Zirkus konpainia.
*17:30* **Frontoia**

**ERAKUSKETA**
Aiaraldeko mugimendu feministaren historiari buruzkoa.
*17:30* **Frontoia**

**20**
**ZINEFORUMA**
Afrikaldiaren barruan.
*18:00* **Kultura Etxea**

**ERAKUSKETA**
Aiaraldeko mugimendu feministaren historiari buruzkoa.
*18:00* **Kultura Etxea**

**31**
**22. KORRIKA**
Haurrentzako jolasak.
*17:00* **Garaikoetxea Parkea**
Erdigunea zeharkatu eta Laudiorako bidea hartuko du, Garate bailaratik.
*22:06*


KO MU NI- KA
FAK TO- RIA
*Zure komunikazio agentzia integrala*

KOMUNIKAZIOA DISEINU GRAFIKOA
BIDEOGINTZA PUBLIZITATEA
ITZULPENGINTZA - INTERPRETAZIOA
F FAKTORIAN / Laudioko industrialdea 4-5
info@komunika.eus www.komunika.eus 946 56 85 54

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
1945. urtetik Laudion zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK
Karmen Kalea 13, behea LAUDIO (Araba) 946 72 31 00
Mediku zen roa RPS: 314/18